



IZENA:

ASPASOR. Arabako Gorren Guraso eta Lagunen Elkartea

Posta-helbidea:

Aranzabal kalea 2, bajo, 01008 Vitoria-Gasteiz, Araba

Telefono-zenbakiak:

945 287 392 // 605 710 026 (WhatsApp)

Logoa:




Helbide elektronikoa:

info@aspasor.org

Webgunea:

<https://www.aspasor.org/>

QR
kodea



Nor diren:

Arabako pertsona gorren gurasoen eta lagunen elkartea. Entzumen-desgaitasuna duten pertsonen eskubideak defendatzeko eta haien familiei laguntzeko lan egiten du, autonomia, gizarteratzea eta komunitatean erabateko parte-hartzea sustatuz.

Zein talderi zuzentzen zaizkion:

Entzumen-desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak.

Zerbitzuak eta Programak:

- Gortasunari lotutako gai guztietarako **arreta-, orientazio- eta laguntza-**zerbitzua.
- **Lan-bitartekaritzako** zerbitzua.
- **Komunikazio-**zerbitzua (hizkuntzaren garapena, irakurketa-idazketa, zeinu-hizkuntza...).
- FM **igorgailua mailegatzeko** zerbitzua (Frekuentzia Modulatua - hizlariaren ahotsa zuzenean pertsona gorraren audifonoetara edo inplanteetara bidaltzen duen gailua).
- Sozializazio-eremua:
 - *Pertsona gorren **senitartekoentzako zeinu-hizkuntza** ikastaroa.
 - ***Gazte** taldea (mistoa: entzuleak eta gorrak).
 - ***Kultura- eta kirol-jarduerak**.
 - ***Ezpain-irakurketa** tailerra eta beste baliabide batzuk (bereziki 50 urtetik gorako pertsonentzat, gerora izandako gortasuna edota entzumen-galera dutenentzat).
 - ***Hitzaldiak**, sentsibilizazioa eta gizarte-eragina.
- **Arreta psikologikoa** ahozko hizkuntzan edo zeinu-hizkuntzan, komunitate gorrean espezializatua.

Beste datu interesgarri batzuk:

Zerbitzu batzuetarako, erakundeko bazkide izan behar da, hala nola FM igorgailua mailegatzeko edo arreta psikologiko espezializatua jasotzeko. Kuota 60 €/urteko da.

